




GURASOEN FUNTZIOA HAURTZAROTIK “GUAY” IZATEA MODAN DAGO!!

Familia batek edo familia osatzen duen heldu bakoitzak hazkuntzarekiko interpretazio propioa izan dezake. Hau da, seme-alabekin modu batean edo bestean jardutea lehenetsi dezake; bere familian ikasi eta bizi izandakoarengatik, edo kontrara, jaso ez izandakoarengatik, praktikan jartzen du bere hezteko modu propioa.



Beraz, guraso-erantzukizuna interpretatzeko moduak eta moduak daude. Hala ere, badira oinarrizko printzipio batzuk, gurasotasuna eta erantzukizunaren jardunaren bizkarrezur direnak. Printzipio hauek, ume eta nerabeen garapen egokia eta ongizate fisikoa eta mentala sustatzen dituzte (Rodrigo eta Palacios, 1998).



1. **Lotura afektibo goxoak, babesleak eta egonkorrak ezarri**, haur, ume eta gazteak onartuak eta maitatuak sentitzeko.

2. **Testuinguru egonkorra eskaini.** Adin txikikoek arauak eta baloreak barneratzeko, gurasoak eredu, gidari eta ikusle izan behar dute.
3. **Eguneroko ikaskuntza estimulatu** eta ikaskuntza prozesuan laguntza eskaini, adin txikikoen motibazio eta gaitasunak sustatzeko.



4. **Seme-alabak baloratu.** Beraien munduarekiko interesa agertu, beraien esperientziak balioetsi, beraien kezkekiko ardura adierazi eta beraien beharrianak ase.
5. **Seme-alabak trebatu.** Agente aktiboak direla, konpetenteak eta gauzak aldatzeko edota besteengan eragiteko gai direnaren pertzepzioa sustatu.
6. **Biolentzia-eza.** Zigor fisiko edota psikologikoa onartzen duen hezkuntza baztertu. Zigor fisikoak osotasun fisikorako eta giza duintasunerako eskubideak urratzen ditu.



Gogoratu, aita edota ama izatearen funtzioetako bat familian harreman positiboak garatzea dela, **guraso-erantzukizunean** oinarritua. Ume eta

nerabeen eskubideak bermatu eta beraien garapena eta ongizate pertsonala eta soziala sustatzeko helburuarekin.

Hala ere, familia guztiek, beraien bizitzako momenturen batean edo bestean, estres egoerak bizi izan dituzte edo bizi dituzte. Adibidez: bizitzako krisialdiak, presio ekonomikoa, aldaketak baldintza sozialetan, auzoen narriadura eta komunitatearekiko loturen haustura edota guraso izatearen lana bakarka egin behar izatea, besteak beste. Arazo edo oztopo horiei aurre egiteko baliabide edo babes askorik izaten ez dutenik ere bada.

Orduan ezinbestekoa izaten da, beharrianak identifikatu eta gurasotasuna aurrera eramateko, familia, lagun edo instituzioetako baliabideei heltzea. Seme-alaben gaitasunak indartu eta garapen mugarri egokiak bereganatzeko bitarteko izanik.

Lotura interesgarria: **Maitasunez hezteko 10 aholku praktikoa**

<https://www.savethechildren.es/publicaciones/10-consejos-para-educar-queriendo>

Familiantzako gida: **Gurasotasunaren gida**

<http://unaf.org/publicaciones/parentalidad-positiva/>

ETXADI. 0-18 urte bitarteko seme-alabak dituzten familiantzako doako Orientazio Zerbitzua **Egin zure kontsulta telefono bidez:** 94 405 15 49 (Asteartetan: 11:30etik 13:00etara eta 17:00etatik 18:30era) **edo www.etxadi.org webgunean [Urola Garaia Mankomunitateko inprimakia betez](#)**

Erreferentzia: *Gurasotasuna y Familias en Positivo*